



Mutrikuko Udala

**MUTRIKUKO UDAL MERKATUKO HIRU SALMENTAPOSTU FINKOREN
ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN KONTRATUA ESLEITZEKO LIZITAZIO PUBLIKOA
ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

XEDAPEN OROKORRAK

1.- EMAKIDAREN XEDEA ETA IZAERA

Emakidaren xedea da Udalaren jabetzakoak diren Mutrikuko udal merkatuan kokatuta dauden eta jarraian zehazten diren 3 salmenta-postu finkoren erabilera pribatiboa ematea, prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez; erabilera udal-jabari publikoaren zati bat hartzean datza, Mutrikuko Merkatuaren ordenantzan jasota dauden jardueretan.

Postuen ezaugarriak ondokoak dira:

- a) 6. postua: azalera erabilgarria: 22,21 m².
- b) 5. postua: azalera erabilgarria: 22,47 m².
- c) 3. postua: azalera erabilgarria: 22,02 m².

Klausula hauen bitartez arautu behar den kontratuak administrazio-izaera du eta, hala izanik, sortzen diren arazoak administrazio bidean argituko dira; bide hori agortutakoan, administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

2.- EMAKIDAREN XEDEA DEN JABARI PUBLIKOA

Mutrikuko Udalaren titulartasuneko den Mutrikuko merkatuko salmenta-postuei emango zaie emakida; aipatutako salmenta-postuak era grafikoan jasota daude agiri honen eranskinan. Adierazitako postuak emakidarik eta baimenik gabe daude.

Emakida-eskubideak erabiltzeak ez du berekin emakidadunari jabari publikoko ondareen gaineko jabetza-eskubide edo -ahalmenak transferitzea.

Ez da beharrezkoa izango baimen berezirik izatea kontratua eraginkor eta baliozkoa izan dadin; kontratua esleitzean, agiri administratiboan jasoko da, bete eta hobetzeko.

3.- EMAKIDAREN NONDIK NORAKOA

Emakidaren bidez eskaintzen diren postuetan merkatu-zerbitzua eskainiko da, Mutrikuko Udalaren merkatuari buruzko Udal Ordenantzaren eta bertan egin litezkeen aldaketan arabera.

Ondasunaren emakidadunak ezin izango du kontratu honen xedea den higiezin obrarik edo instalaziorik egin, aldez aurretik Mutrikuko Udalak horretarako baimena eman gabe.



Mutrikuko Udala

4.- EMAKIDAREN IRAUPENA

Jabari publikoko emakidaren iraupena 10 urtekoa izango da, emakidaren kontratua izenpetzen den unetik zenbatzen hasita. Alderdiek emakidaren iraunaldia amaitu baino lehen hala adostuta, iraunaldia 10 urte bete arte luzatu ahal izango da urtez urte.

Kontratua automatikoki luzatuko da alderdietako batek ere kontratua baliogabetzeko eskatzen ez duen bitartean.

Epe hori amaitutakoan, edo amaitu baino lehen, Udalak emakida eraginik gabe uzteko ahalmena izango du, esleitutako postu jakin hori udal merkatutik kenduta, edo aldatuta edo erreskatatuta, edo interes publikokoak diren beste arrazoi batzuk direla medio, egokiak diren legezko izapideak egin eta gero, eta, hala badagokio, kalte-ordainketak egin eta gero.

Emakidaren xedea den erabilera pribatiboa egiteko baimenak iraungi ahal izango dira titularrak agiri honetan edo udal merkaturaren arautzen duen udal ordenantzan adierazten diren betebeharrak betetzen ez baditu.

Baimena edozein arrazoiengatik bukatzen denean, titularrak erabiltzen duen postua libre utzi beharko du eta hartu zuen egoera berean udalari itzulita. Hala egiten ez bada, udal administrazioak erabaki dezake Udalak berak auzia administrazio-bidean jartzea.

5.- EMAKIDEN ESKUALDATZEA

Horniduren udal-azoketan salmenta-postuen emakidak sorrarazten dituen eskubideak pertsonalak eta bizien arteko ekintzen bidez besterenezinak dira. Postu bat eskualdatzea baimenduko da, bakar-bakarrik, titularrak erretiroa hartzen badu, eta zuzeneko senide bati egin beharko zaio, jarduera berarekin jarraituz gero, betiere. Emakidaduna hiltzen bada, postuaren titularraren oinordekoari edo legatuhartzaileari eskualdatuko zaio salmenta-postua. Hala eta guztiz ere, heriotzaren ondoriozko egintzen bidezko eskualdatze-eskubideak Azokei buruzko Udal Ordenantzaren 10. artikuluan eta hurrengoetan araututa daude.

6.- LIZITATZAILEEN IZAERA

1. Prozedura ireki eta izapidetze arruntaren bidezko lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute espainiarrak edo atzerritarrak diren pertsona natural edo juridikoek, baldin eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan bereziki galarazten diren egoeretan ez badaude. Ezin izango dira postuaren titular izan artikuluen salmentan behin eta berriro iruzurra egin dutenak, azken zehapena lizitazioa jendaurrean jarri baino urtebete lehenagoko epearen barruan ezarri baldin bazaie.

Lizitazioan parte hartzen duten pertsona fisikoek elikagaien manipulazaila-agiria izan beharko dute, eta parte hartzen dutenak pertsona juridikoak badira, beren ordezkoez euren gain izango dute postuei atxikitako langileek aipatutako manipulazaila-txartela izateko ardura, egiten duen jarduerarako beharrezkoa denean.



Mutrikuko Udala

Pertsona juridikoei kontratuak esleituko zaizkie, bakar-bakarrik, bertan jasotako prestazioak pertsona horiei dagozkien xede, helburu edo jarduera-esparruaren barruan badaude, beren estatutu edo sorrerara- arauen arabera. Era berean, banakako enpresari bat esleipendun suertatuz gero, jardueran iraunkortasunez aritzen diren langileak eta jarduerari iraunkortasunez atxikitako materialak dituen erakunde bat izan beharko du, eta jarduerak ere kontratuaren xedearekin lotura zuzena izan beharko du.

Esleipendunak, senideek eta/edo enplegatuek beren lan-egoera formalizatu beharko dute, eta nahitaezkoa izango da aurreikuspen eta gizarte segurantzako betebeharrak betetzea. Pertsona horiek ez dute Mutrikuko Udalarekin enpleguaren edo eginkizunaren harreman juridikorik izango, eta ezin izango dute esleipendun izatea alegatu eskubideen itxaropenak edukitzeko, ezta etorkizunean egin litezkeen kontratazioetan lehentasuna izateko ere. Era berean, pertsona esleipendunak egiaztatu beharko du nahikoa eskarmentua duela agiri honen xedea denaren antzeko lanetan. Organo kontratatzaileak ebatziko du eskarmentu horren nahikotasuna.

2. Salmenta-postuen emakida-kontratu bakoitza pertsona edo erakunde bakar bati emango zaio. Alabaina, bi pertsona edo erakunderi edo gehiagori eman ahal izango zaie, baldin eta aldi baterako enpresarien batasuna eratzen badute eta proposamen-idazkian honakoak egiaztatzen badituzte: taldekideen izenak eta egoerak, kide edo erakunde bakoitzak batasunean duen partaidetza, kontratuaren esleipendun suertatuz gero aldi baterako enpresarien batasuna legez eratzeko konpromisoa; era berean, kontratuaren indarraldi osoan eta iraungi arte, batasunaren ordezkari bat izendatuko dute, kontratuaren ondorioz eta kontratua iraungi arte batasunak dituen eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen izango duena. Pertsona edo erakunde bakoitzak bere burua modu solidarioan behartzen du Udalbatzaren aurrean, eta Udalbatzak batasunaren aurrean dituen eskubideak zatiezinak izango dira, edonola ere.

3. Enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako erreferentzia hauek aurkeztuta arrazoituko da:

1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzen duten finantza-erakundeen txostena, edo, hori ezean, lanbide-arriskuen ondoriozko kalte-ordaineko aseguruak.
2. Sozietateek urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte, edo kontu horien laburpena.
3. Negozio guztien kopuruari eta azken hiru ekitaldietan egindako zerbitzuei buruzko adierazpena.

Lizitatzailaren kaudimen teknikoa arrazoitzeko, erreferentzia hauek aurkeztuko dira:

1. Enpresarien eta enpresako Zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta bereziki kontratua gauzatzeko ardura duten langileen tituluak.
2. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoak, datak eta lan horien onura publiko edo pribatuak adierazita.
3. Enpresariak kontratua burutzeko dituen material, instalazio eta ekipo teknikoaren deskribapena.
4. Merkataritzan duen enpresa-eskarmentua azaltzea.

7.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua behar bezala burutzen dela gainbegiratzeko, koordinatzeko, egiaztatzeko eta zaintzeko ardura Udal Administrazioarena izango da, eta aipatutako udal-administrazioaren Idazkaritza zerbitzuaren bidez gauzatuko da eta Garapen Sozio-ekonomiko zerbitzuaren laguntzaz.



Mutrikuko Udala

Hauek izango dira Idazkaritza zerbitzuaren eginkizunak:

- Itundutako prestazioa behar bezala emateko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta aginduak ematea.
- Itundutako prestazioa behar bezala emateko beharrezkoak diren baliabideak eta antolaketa galdatzea.
- Zerbitzua kalitatearen eta denboraren aldetik zuzentasunez gauzatzeko egokiak diren aginduak ematea.
- Zerbitzuaren kudeaketari dagokion harrera- edo onarpen-akta izenpetzea, kontratua likidatzearen ondorioetarako.
- Aurretiatzko txostenak idaztea, jaso ahal izateko.
- Lana gauzatzean sortzen diren gorabeheri irtenbidea ematea.
- Agiri honetan ezarritako beste edozein.

KONTRATUA BETETZEA

8.- EMAKIDAREN ESPARRUA

Emakidak barnean hartuko du kontratuaren xede den postuaren erabilera, proposatzaile bakoitzak bere eskaintzan aurkezten duen Jarduerari buruzko Memorian deskribatutako helburuaz; jarduera horniduren udal merkaturi dagokion jarduera ekonomikoa izango da, Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, eta ezin izango da hortik kanpoko inolako jarduerarik burutu.

Salmenta-postuen titularrek emakida honen xede den jabari publikoko ondasunaren aprobetxamendu pribatiboa gozatuko dute, eta erabat bete beharko dituzte horniduren udal merkatuari buruzko arauak, ordutegi, jokaera, garbiketa eta abarrei dagokienez. Eskuduna den udal-funtzionarioak arau horien berri emango die, horniduren udal merkatuaren funtzionamenduan ohikoa denari jarraituz.

Era berean, osasun eta elikagaien trafikoari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko dituzte, eta Osakidetzako zonako arduradunak ikuskatuko ditu, hala dela egiaztatzeko.

Egin beharreko jarduera abian jartzeko obrak eta instalazioak gauzatu behar izanez gero, beharrezkoa izango da Udalaren berariazko baimena eskuratzea; horrez gain, aginduzkoak diren udal-lizentziak eskuratu beharko dira, eta beharrezkoak diren zergak edo tasak ordaindu.

9.- UDALAREN AHALMENAK

Kontratu honi dagokionez, Udal Administrazioak indarrean dagoen legeriak onartzen dizkion ahalmenak izango ditu, eta baita agiri honetan zehazten direnak ere.

Udalbatza Osoak, Tokiko Gobernu Batzordeak eta Alkatetza-Lehendakaritzak, bakoitzari dagozkion eskumenak betez, ahalmen horiek gauzatzean burutu beharreko egintzak erabakiko dituzte.

Mutrikuko Udalari dagokio emakidaren kontratua interpretatzea, eta Udaleko organoek emandako ebazpenak berehala bete beharko dira. Nolanahi ere, horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkezteko aukera egongo da.



Mutrikuko Udala

Udalaren ardura da emakida zuzentzea eta kontrolatzea, eta, ahalmen horiek betez, emakida aldatu eta indargabetu dezake amaiera-epea iritsi baino lehen, baldin eta bat-bateko interes publikoko inguruabarrak gertatu eta neurri horiek hartu behar badira. Nolanahi ere, emakida interes publikoaren arrazoiengatik baliogabetzeak ez du berekin izango emakidadunak kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik eskuratzea.

10.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Emakidak honako eskubide hauek ematen dizkio titularrari:

- a) Emakidaren xede diren jabari publikoko ondasunak era pribatiboan erabiltzea eta era baketsuan aprobetxatzea.
- b) Udal Administrazioak edo, hala badagokio, zerbitzuaren emakidadunak, merkatuko zerbitzu orokorrak egoera onean mantentzea.
- c) Udal Administrazioak eta, hala badagokio, zerbitzuaren emakidadunak entzuna izatea eta behar bezalako arreta eskaintzea egiten dituen erreklamazio, eskaera eta iradokizun guztietan.

Emakidaren titularrak honako betebeharrak bete beharko ditu:

- a) Alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.
- b) Erabilera-baimena egiaztatzen duen agiria edukitzea.
- c) Salmenta-postuak bere negozioko salgaiak eta objektuak saltzeko eta gordetzeko soilik erabiltzea.
- d) Erabilitako postuak, obrak eta instalazioak egoera onean mantentzea.
- e) Adierazitako orduetan etenik gabe jardutea salmentan, behar den hobe zintzasunaz eta arduraz.
- f) Guztiz txukuna izatea bere garbitasunari dagokionez, eta lan egiteko bere jarduerari soilik dagozkion jantziak erabiltzea, garbitasun-egoera egokian.
- g) Elikagaien manipulazailerik gabeko edukitzea, egiten duen jarduerarako beharrezkoa denean.
- h) Postuak garbi egotea eta egoera egokian apaintzea, higiene eta osasungarritasunari dagokienez, batez ere salmenta egiten den ordutegi osoan.
- i) Merkatuaren garbikuntzan, mantentze eta zaintze-lanetan laguntzea.
- j) Kanona eta dagozkion gainerako ordainarazpenak ordaintzea.
- k) Aktibitatearen 300.000,00 euroko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzea.
- l) Titularrak berak, senideek edo menpekoek merkatuko instalazioetan edo eraikinetan egiten dituzten kalte-galeren zenbatekoa ordaintzea.
- m) Udalak emakida edo burututako jarduerari buruz eskatzen dituen datuak ematea.
- n) Udal zerga eta ordainarazpenen ordaintzea egiaztatzea, eskatzen zaion aldi oro.
- o) Jarduera arautzen duen merkatuaren Ordenantzan eta gainontzeko araubide, arautegi eta arbarretan zehaztutako gainerako betebeharrak betetzea.

11.- EMAKIDAREN ERRESKATEA

Udalak beretzat gordetzen du emakida amaitu baino lehen erreskatatzeko eskubidea, interes publikoko inguruabarrak kontuan izanda beharrezkoa denean. Udal Administrazioak ahalmen hori erabiliz gero, emakidadunari emakidaren kanonaren prezioa ordainduko zaio kalte-ordain gisa, ondoko eran:

- 1. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 80.
- 2. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 60.



Mutrikuko Udala

- 3. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 40.
- 4. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 20.
- Ez da kanona itzuliko emakidaren erreskatea 5. urtetik aurrera egiten bada.

Erreskatea emakidadunari egoztekoa den arrazoi baten ondorioz egiten ez bada, egokia izango da kalte-ordainketa gitea, une horretan indarrean dauden arauak jarraituz.

Horrelakoetan, emakidadunak horniduren udal merkatuko postua Udalak ezarritako epean abandonatu eta libre uzteko konpromisoa hartuko du; aipatutako epeak hiru hilabeteko iraupena izango du gehienez ere, erreskatea egiteko erabakia jakinarazten den egunetik hasita. Bestela, era automatikoa galduko du atal honetan aurreikusitako kalte-ordainketak jasotzeko eskubidea.

USTIAKETARI BURUZKO ARAUBIDEA

12.-KUDEAKETA ESKLUSIBOTASUNA

Salmenta-postuaren kudeaketa emakidadunaren ardura izango da eta ez beste inorena, Udal Administrazioak edo izaera orokorreko xedapenetan edo administrazio baldintza berezien agiri honetan ezarritako beste administrazio publiko batzuek esku hartzeko ahalmenak eragotzi gabe.

Kudeaketak emakidadunaren jardura pribatuaren izaera izango du. Udal Administrazioari ez zaio inolaz ere goziko emakidadunak egindako kudeaketa-jardura.

13.-MERKATUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Emakidaren xede diren salmenta-postuen titularrek aipatutako postuak erabili ahal izango dituzte administrazio-baldintza berezien agiri honetan ezarritakoa betez, baita indarrean dagoen udal ordenantzan zehaztutako araudia, Udal honek hala badagokio sailen bidez eman ditzakeen ildoak eta, nolana ere, indarrean dagoen araudia ere.

14.- SALMENTA-POSTUEN ERABILERA

Emakidadunek nahitaz burutu beharko dute emandako emakidaren jardura.

Eginkizun-espezialitatea aldatzeko, beharrezkoa izango da baimena eskuratzea; baimena hautaz emango da, baina hori ez da eragozpen izango jardura berria egiteko egokiak diren baimen guztiak eskatzeko.

Emakidadunak berak, bere senideek edo emakidadunaren soldatapeko langileek burutu beharko dute jardura.

Emakidadunaren eta publiko erabiltzailearen arteko harremanek ez dute eraginik izango Udal Administrazioan.



Mutrikuko Udala

15.- ZAHARBERRITZE- LANAK MERKATUAN

Udal Administrazioak zaharberritze-lanak egin ahal izango ditu azoketan.

Emakidadunak ezin izango dio Udal Administrazioari kalte-ordainik eskatu zaharberritze-lanen ondorioz salmentan murrizketa gertatuz gero.

16.- MERKATUA ZAINTZA

Udalak lizitazio honen xede den postua ematen du gaur egun duten egoeran.

Emakidadunek postua eta bertako elementuak eta instalazioak mantendu beharko ditu behar bezalako segurtasun-, osasungarritasun-, apaingarritasun-, lasaitasun- eta girotze baldintzetan, eta beharrezkoak diren zaharberritze-, konpontze-, zaintze- edo mantentze-lanak egin beharko dituzte.

Udal Administrazioak baldintza horiek mantentzeko edo lehengoratzeko obrak edo jarduketak gauzatzeko agindua eman ahal izango du, ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta.

EMAKIDAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

17.- BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA EMAKIDAREN KANONA

Jabari publikoko emakidak egiteko antolamendu juridikoak ezartzen dituen berezko betebeharez gain, emakidadunak honako hauek ere bete beharko ditu:

a) Itzultzeko bermea.

Emakidaren iraunaldia amaitutakoan, jabari publikoa emakida eman baino lehenagoko egoerara itzuli behar bada, emakidadunak itzultze horren kostuari dagokion diru-kopurua ordaindu beharko dio Mutrikuko Udalari. Ondorioz, kontratua gauzatu dela bermatzeko 2.000,00 euroko itzultzeko bermea ezartzen da; kopuru hori eguneratu egingo da Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera.

Itzultzeko betebeharra beteko dela bermatzeko, esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, berme hori eratu beharko du udal kontuhartzailtza sailean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa betez.

b) Emakidaren kanona.

Lizitaziorako oinarritzko kanona 600,00 euro izango da. Lizitatuzaileek oinarritzko prezio horiek hobetu ditzakete egiten dituzten eskaintzetan. Behin betiko kanona esleipen-akordioan zehaztuko da.

Emakidadunak kopuru hori udal kontuhartzailtza sailean ordaindu beharko du hiru eguneko epean, emakidaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Mutrikuko Udala

Emakidaren kanonaz gain, emakidadunak jabari publikoko ondarearen erabilera pribatiboagatiko tasa ordaindu beharko du. Tasa hori urtero eguneratu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

2024 urtean indarrean den tasa, orientagarri izan dadin, metro karratuko eta hileko 3,43 eurokoa da. Tasa hau itzultzeko bermearen baldintza beretan berrikusiko da eta hilerik likidatuko da.

d) Beste gastu batzuk

Emakidaren kanona alde batera utzita, emakidadunak honakoak ordaindu beharko dizkio Udal Administrazioari:

- Zerbitzua ematearen ondoriozko zergak, tasak eta era guztietako gastuak.
- Horniduren udal merkatuan etorkizunean egin litezkeen zaharberritzeko obrak burutzeko ezar litezkeen zerga bereziak.
- Udal Ordenantzan ezarritako mantentze-
- gastuak ordaintzeko dauden prezio publikoak.

Kontzeptu horiek indarrean dagoen legediaren arabera ezarriko dira.

18.- KONTRATUA HARTZEA ETA KONTRATUAREN LIKIDAZIOA

Kontratu hau betetzat emango da bere indarraldia amaitu eta, une horretatik hasita hilabeteko epean, kontratua hartzeko edo onartzeko ekitaldi formal eta positiboa egiten denean.

Kontratu hartzeko ekitaldi formal hori egin denean, kontratazio-organoak adieraziko du, kontratua likidatzeko berariazko erabakiaren bidez, kontratistak emandako prestazioa izan den kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako zehaztapenen arabera, eta, bidezkoa bada, kontratuaren harrera formala egitean hautemandako akatsak konpontzeko eskatuko zaio. Kontratistari egoztekoak diren hutsegite edo akatsen ondorioz emakidaren xedea den zerbitzuaren kudeaketa kontratatutako prestazioaren arabera izan ez dela egiaztatzen bada, kontratuaren likidazioari uko egin ahal izango zaio, eta, hala eginez gero, egokiak diren kalte-ordainak eskatu ahal izango dira.

Kontratu hartu edo onartzeko aktan jasotako egunetik hasita hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa adostu eta kontratistari jakinaraziko zaio.

19.- BERMEAREN EPEALDIA

URTEBETEKO berme aldia ezarriko da, kontratu hartu edo onartzen den egunetik zenbatzen hasita. Bermealdian, kontratua gauzatzeari egoztekoak diren arrazoen ondorioz, zerbitzu publikoaren emakidan hutsegiteak edo akatsak daudela egiaztatzen bada, edo hirugarrenei edo Udal Administrazioari berari kalteak egin zaizkiela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari hutsegite edo akats horien konpontzea eskatzeko, nahikoa bada.

Bermearen epealdia Udal Administrazioak goiko paragrafoan adierazitako konpontzea edo salaketaren bat egin gabe amaitzen bada, egindako prestazioaren aurrean erantzutetik salbuetsita geratuko da kontratista.



Mutrikuko Udala

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrek ezagutzeko eta, horiei dagokienez, entzuna izateko.

ERANTZUKIZUNEI BURUZKO ARAUBIDEA

20.- KALTEENGATIK ERANTZUKIZUNA

Udal Administrazioak eta emakidadunek sortzen dituzten kalte-galerak konpondu eta ordaindu beharko dituzte, beren betebeharrak betetzean dolu, arduragabekeria edo berankortasunean erortzen badira, edo edozein modutan beren betebeharrak betetzen ez badituzte.

Horrez gain, egokiak izango dira konponketa eta kalte-ordainketa indarrean dagoen legediak aurreikusitako egoeretan.

Postuaren titularrak, titularra izateagatik eta jabari publikoko ondasunak era pribatuan erabiltzeagatik, emakidaren xede diren ondasunetan egindako kalte-galeren aurrean erantzun beharko du, eta, horren ondorioz, deskribatutako ondasunetan egindako edozein kalte ordaindu beharko du. Era berean, emakidadunek egoera onean mantendu beharko dituzte erabilitako jabariaren zatia eta, hala badagokio, egindako obrak, eta goiko paragrafoan adierazitako moduan erantzun beharko dute eratutako bermearen bidez; bermea une oro mantenduko da osorik.

21.- KALTEAK HIRUGARREN BATI

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera, emakidadunek erantzun beharko du kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren jardueren ondorioz hirugarrenei egiten zaizkien kalte- galeren aurrean, Udal Administrazioaren aginduren baten berehalako eta zuzeneko ondorio direnean salbu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta hirugarrenak Udal Administrazioari zuzenean kaltea ordaintzea eskatzen badio Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 112. artikulua zehazturikoa jarraituko da.

Udal Administrazioak epai judizial bat gauzatzeko ordaindutako kalteen zenbatekoa eta kostuak jasanaraziko dizkio emakidadunari, horien egozpena bere gain hartzen ez baditu.

22.- ERANTZUKIZUNAK

Behin betiko bermearen bidez, kontzeptu hauen aurrean erantzungo da:

- a) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 192. artikulua arabera kontratistari ezarritako zigorrak.
- b) Kontratuan adierazitako zerbitzuak ondo betetzea; kontratistak bere betebeharrak betetzean berandutzearen ondorioz Administrazioari sortutako gastuak; kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez bada, hura gauzatzegatik edo ez betetzeagatik Administrazioari sortutako kalteak eta galerak.



Mutrikuko Udala

c) Kontratua suntsiarazten denean, erabaki daitekeen konfiskazioa, hartan edo lege honetan adierazitakoaren arabera.

23.- ARAU-HAUSTEAK

1. Emakidadunak aginduzkoak diren eta ezaugarri teknikoen agirian nahiz udal-azoken araudian jasota dauden betebeharrak betetzen ez baditu, arau-hauste horri dagokion zehapen espedientea irekiko zaio.

2. Udal Administrazioak emakidadunari erantzukizuna eskatu ahal izango dio dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik, emakida suntsiarazteko erabakia, egokia bada, alde batera utzita. Emakidadunak, senideek edo soldatapekoek kontratu hau gauzatzean egiten dituen arau-hausteak honela sailkatuta egongo dira: arinak, larriak eta oso larriak.

Aplikatu beharreko arau-hausteak eta zehapenak Mutrikuko Udal Merkatua arautzen duen Ordenantzak arautuko ditu, III. tituluko I. eta II. kapituluetan, eta etorkizunean izan ditzakeen aldaketekin eguneratuko dira.

Jarraian, gaur egun indarrean dauden arau-hausteak eta zehapenak azalduko ditugu:

Arau-hauste arintzat hartuko dira:

1. Bizikidetzako ohitura eta arau onen aurkako eskandalua edo portaera txarra sortzen duten eztabaidak edo asaldurak.
2. Zabarkeria pertsonen, postu edo lokalen eta erabiltzen dituzten tresnen garbitasunari eta garbitasunari dagokionez.
3. Udal-administrazioak emandako jarraibideak ez betetzea.
4. Ordenantza honi egindako beste edozein arau-hauste, falta astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez dena.

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Falta arinen bat behin eta berriz egitea, hau da, beste hutsegite arin bat egitea, aurretik zehatutakoa egin eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.
2. Merkatuan eskandalua sortzen duten istiluak edo liskarrak.
3. Gai horretan eskumena duen edozein kidek edo funtzionariok Alkatzaren edo Udalbatzaren xedapenei edo aginduei men ez egitea.
4. Egitura aldatzea, postuak instalatzea, dagokion baimenik gabe edo korporazioak emandako arauak bete gabe.
5. Eraikinari, postuei edo instalazioei kalte egitea, doloz edo zabarkeriaz.
6. Saldutako lehengaien kantitatean edo kalitatean egindako iruzurrak.
7. Lanpostua eskualdatzea, subrogatzea edo alokatzea, ordenantza honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak bete gabe.
8. Emakidan baimendutakoez bestelako gaiak saltzea.
9. Egiten duen jarduerak hala eskatzen duenean, janari-erabiltzailearen txartela ez izatea.
10. Baimenik gabe edo esleitutako lekuetatik kanpo saltzea.
11. Kuotak garaiz ez ordaintzea.



Mutrikuko Udala

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Urtebetean hiru hutsegite larri egitea, edozein motatakoak.
2. Salgaiak baldintza txarretan saltzea, Osasun Ikuskaritzak behar bezala egiaztatuta eta zehatuta.
3. Osasun-arloan bateraezinak diren edo salmenta-postuan baimendutako arloan edo jardueran sartuta ez dauden gaiak, produktuak edo gaiak saltzea.
4. Baimendutako hiltegi industrialetan hil ez diren produktuak edo animalia-zatiak bidaltzen direnean.

3. Udalbatzak emakidadunari zehapen hauek ezarri ahal izango dizkio, horretarako bideratuko zehapen-espedientearen ondorioz:

1. Hutsegite arinengatik ohartarazpena eta 750,00 eurorainoko isuna ezarri ahal izango dira.
2. Falta larriak: 1.500,00 eurorainoko isuna eta/edo salmenta etetea, gehienez ere 30 egunez.
3. Hutsegite oso larriak 3.000,00 eurora arteko isunarekin zehatuko dira, edo emakida iraungita geratuko da.

Baimendutako gehieneko kopuruaren barruan, isunen zenbatekoa modu objektiboan eta arrazoituan ezarriko da, kasuaren inguruabarrak eta arau-haustearen aurrekariak eta ondorioak kontuan hartuta, udal zuzenbide zehatzailearen arauen arabera.

Arau-hauste oso larriak eginez gero, kontratua suntsiarazi ahal izango da kontratistari egotz dakioken arrazoiren batengatik, eta, hala badagokio, kalte-galeren ordaina ordaindu ahal izango da.

Zehapenak ezartzeko beharrezkoa izango da zehapen-espedientea bideratzea. Prozedura horretan, entzun egingo zaio emakidadunari, egintzak egiaztatzeko beharrezkoak diren informazioa eta frogak aurkeztuko dira, eta Herri Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zehaztutako berme juridiko eta administratiboak beteko dira, Legea aplikagarri den alderdian.

Alkateari dagokio zehapenak ezartzea.

EMAKIDA SUNTSITZEA

24.- EMAKIDA IRAUNGITZEA

Emakidak honako arrazoi hauengatik iraungi ahal izango dira:

1. Emakidaren indarraldia iraungitzea, epea amaitu delako. Epea amaitu baino urtebete lehenago, Udal Administrazioak ikuskari tekniko bat izendatu ahal izango du, obrak eta instalazioak mantentzen direla zaintzeko; berak proposatuko ditu egin beharreko konponketak eta lehengoratzak, agiri honetan adierazitako egoeran mantendu ahal izateko.
2. Titularra hiltzea edo ezindua geratzea, edo Udalak onartutako berariazko eta idatzizko uko egitea aurkeztea.



Mutrikuko Udala

Nolanahi ere, titularraren oinordeko guztiek, edo edozein oinordekok gainerakoen ordezkartzan eta adostasunez, proposamena egin ahal izango diote Udalari emakidarekin jarraitzeko, betiere baldintza beretan eta ezarritako indarraldia amaitu arteko denborarako. Udalak subrogazioa baimenduko du, baldin eta oinordekoek egiaztatzen badute emakida esleitzeko oinarri izan ziren baldintza objektibo eta subjektibo berak betetzen dituztela. Oinordekoen artean adostasunik ez badago, emakida iraungi egin dela adieraziko da.

3. Ebazpen irmoaren bidez, titularrak egindako lur-jotzearen aitortpena.

4. Titularra pertsona juridikoa denean, sozietatea iraungitzea.

5. Esleipendunari egoztekoak diren antolamendu juridikoaren, azoken araudiaren edo agiri honen aurkako ekintzak edo ez-egiteak burutzea, kontratuaren funtsezko elementuetan eragina dutenean. Kontratuaren funtsezko elementuak dira, besteak beste, arau-hauste oso larriak egitea, edo postua azoken udal-araudian ezarritakoa bete gabe eskualdatzea edo lagatzea. Horrelakoetan, emakida iraungitzeaz gain, ondorio hauek egongo dira:

- Udal Administrazioari itzuliko zaizkio ondasunak, obrak eta instalazioak nahiz postuaren ustiaketa.
- Emakidadunak Administrazioari ordainduko dizkio egiaz egindako eta ekonomiaren aldetik balioetsi daitezkeen kalte-galerak.

6. Bi alderdiek elkarrekin adostuta, horrelakoetan adosten diren baldintzetan. Ez da bidezkoa izango elkarrekin ados jarrita emakida suntsitzea, emakidaren iraungipenaren aldeko kausak daudenean.

7. Zehapenez, baldin eta horretarako egindako aldeko espedientean hala erabakitzen bada.

8. Administrazioak baldintzak ez betetzea. Emakidadunak emakidaren suntsipena proposatu ahal izango du, Udal Administrazioari egoztekoak diren eta alderdi juridikotik zuzenak ez diren ekintzen edo ez-egiteen ondorioz emakidaren xedea den ustiaketan eragozpenak edo nahaste larriak sortzen badira.

Suntsipenak ondorio hauek izango ditu:

- Emakida iraungitzea
- Udal Administrazioari itzultzea ondasunak, obrak eta instalazioak nahiz postuaren ustiaketa.
- Administrazioak emakidadunari ordaintzea egiaz egindako eta ekonomiaren aldetik balioetsi daitezkeen kalte-galerak.

9. Emakidaren xedea desagertzea.

10. Kanona ez ordaintzea edo, kontratazio organoak emakidadunaren betebeharretan hautemandako ez betetze larria.

11. Emakida amaitu baino lehen erreskatatzea, edo emakida alde bakarreko erabakiaren bidez suntsitzea, edo horniduraren udal merkaturan zerbitzua bukatu baino lehen kentzea, interes publikoko bat-bateko inguruabarrek kontuan izanda beharrezkoa bada.

12. Jabari publikoko ondasuna kentzea.

13. Agiri honetan eta udal-azoken ordenantzan aurreikusitako gainerako kausak.



Mutriku Udala

Edozein arrazoi dela-eta emakida iraungi edo suntsitzen denean, titularrak libre eta hutsik utziko du salmenta-postua Udalaren eskura; hala egiten ez bada, Udalak berak erabaki eta gauza dezake administrazio-bidera jotzea.

25.- BESTE GASTU BATZUK

Eskritura publikoek, espedientea formalizatzek, espedientea itzultzek eta, oro har, kontratuaren indarraldi osoan behin betiko bermea itzuli arte sortzen diren gastuak esleipendunaren kontura egingo dira.

PROPOSAMENAK ETA AGIRIAK

26.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Jarraian, kontratazio honi dagokion espedientea nahiz erantsitako dokumentazio teknikoa aztertzeko lekua, ordutegia eta epea zehaztuko dira:

LEKUA: Mutriku Udalaren erregistro elektronikoa, www.mutriku.eus webgunearen bidez edo, bestela, Mutriku Udaleko Harrera zerbitzuan kokaturiko Erregistro Orokorrean, 09:00etatik 14:00etara.

EPEA: 15 egun natural, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Iragarkia eta espedientea osatzen duten gainontzeko agiriak web honetan irakurri ahal izango dira: www.mutriku.eus.

Epearen azken eguna larunbata, jaieguna edo Mutriku jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Proposamenak, era berean, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan araututako lekuan eta moduan aurkeztu ahal izango dira.

Parte hartzeko eskabideak isilekoak izango dira, eta eskabideak aurkezteak berekin izango du ezaugarri teknikoen agirian eta baldintza administratiboen agirian jasotako xedapen guztiak salbuespenik gabe onartzea, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 139. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Agiriak ezin izango dira berreskuratu, behin aurkeztu direnean, kasu honetan izan ezik: Proposamenari uko egitea, kontratazio organoak arrazoituzat joz gero.

Adierazitako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko. Kontratazio Mahaiak ere ez ditu onartuko postaz bidali eta epez kanpo jasotako eskabideak, baldin eta, egokia den jakinarazpenaren bidez, proposamenak aurkezteko epearen barruan bidali direla ziurtatzen ez bada.

Eskatzaileek 3 gutunazal itxi aurkeztu beharko dituzte, behar bezala sinatuta. Gutunazaletan, hau idatziko da: “MUTRIKUKO MERKATUAN SALMENTA-POSTUAK ESLEITZEKO PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.



Mutrikuko Udala

Era berean, eskabidea izenpetzen duenaren izen-abizenak idatziko dira, noren izenean jarduten duen adierazita.

1. A GUTUNAZALA

Gutunazalean agiri hauek sartuko dira:

a) Lizitatzailaren eta, hala badagokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

a.1. Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eraketaren eta, hala badagokio, aldaketaren eskritura aurkeztu beharko dira, behar bezala inskribatuta Merkataritza Erregistroan, eta baita identifikazio fiskaleko zenbakia ere (IFZ), ezargarria den merkataritzari buruzko legediaren arabera inskribatu behar bada. Eskatzailea pertsona juridikoa ez bada, jarduteko ahalmena egiaztatuko da eraketaren eskritura edo eraketaren agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztuta, eta sorrera-egintzan jarduera arautzen duten arauak aipatu beharko dira.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina Europako Batasuneko herrialderen batekoak badira, beren inskribapena lanbide- edo merkataritza-erregistroan egiaztatu beharko dute, dagokien estatuko legediak hala eskatzen badu.

Gainerako enpresari atzerritarrek beren jarduteko ahalmena egiaztatu beharko dute dagokien herrialdean dagoen Espainiako Enbaxadak emandako ziurtagiriak aurkeztuta.

a.2. Lizitatzailak bere izenean jarduten badu, nortasun-agiri nazionala (NAN) aurkeztu beharko du, edo bere estatuan baliokidea den agiria.

a.3. Beste pertsona baten izenean jardun edo proposamena izenpetzen badu, NANaz gain, ekintza horiek egiteko moduko ahalordea aurkeztu beharko du. Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da.

a.4. Proposamena enpresen batasun batek egiten badu, enpresen batasunean parte hartzen duten enpresariak bertan duten partaidetza eta inguruabarrak zehaztu beharko dituzte, eta esleipendunak suertatuz gero, aldi baterako enpresen batasuna era formalean eratzeke konpromisoa hartuko dute.

b) Sektore Publiko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan araututakoaren arabera, kontratatzeke debekuak ez direla hausten egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena; bertan adieraziko da, halaber, zergaren nahiz Gizarte Segurantzaren alorreko xedapenak betetzen direla. Esleipenduna suertatzen den enpresariak klausula horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, kontratua esleitu baino lehen.

c) Lizitatzailaren kaudimen ekonomiko eta tekniko eta profesionala egiaztatzen duten agiriak, agiri honetako 6.3 klausulan ezarritakoaren arabera; enpresen batasunek batasun hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dituzte, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 59. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Pertsona fisikoek egokiak diren ziurtagiriak aurkeztuko dituzte, finantza-erakundeak emanda; horiek ezean, arrisku profesionalen kalte-galerak ordaintzeko aseguru bat badutela egiaztatu beharko dute.



Mutrikuko Udala

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren xede den objektuari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela ziurtatzen duen agiria, horretarako alta-agiria aurkeztuta; bestela, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion azken ordainagiria aurkeztu beharko da, eta, edonola ere, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez duela baieztatzen duen ardurapeko adierazpena, bi kasuetan.

e) Hainbat enpresarik aldi baterako batasuna eratuta lizitazioan parte hartzen badute, enpresarietako bakoitzak bere nortasuna eta ahalmena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoari jarraituz, eta kontratuaren esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresen batasuna era formalean eratzeko konpromisoa hartuko dute. Proposamenetan adieraziko da aldi baterako enpresen batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zer alderdi beteko duen, eta, hala, banan-banan zehaztuko eta egiaztatuko da kaudimen-baldintzak betetzen dituztela.

f) Lizitatzaillearen Curriculum Vitae, formakuntza eta lan-eskarmentua adieraziz.

g) Elikagaien manipulatzaile agiriaren kopia.

h) Eskabidea I ERANSKINeko ereduaren arabera aurkeztuko da.

Eskatutako agirien jatorrizkoak edo fotokopiak aurkeztu ahal izango dira, Administrazioak edo Notario batek behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

2. B GUTUNAZALA

“PROPOSAMEN TEKNIKOA” titulu idatziko da gutunazal honetan, eta bertan sartuko da eskaintzak balioesteko beharrezkoa den dokumentazioa, agiri honen 27. klausulan ezarritako irizpideen arabera memoria tekniko idatziko da non garatuko den jarduera, erabiliko dituen baliabide pertsonal eta materialak, egoera soziala, familiakoa, ekonomikoa eta lanekoa, ingurumen eta iraunkortasun irizpideak, parte hartutako ekintzailetasun programak...

3. C GUTUNAZALA

Gutunazal honek lizitatzailleak egiten duen proposamen ekonomikoa jasoko du, II. ERANSKINean emandako ereduaren arabera.

Proposamenaren agirian (edo gutunazal itxian), jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak jasoko dira, gaia arautzeko indarrean dagoen legeriaren arabera.

Proposamenerako agiriak aurkezteak berekin du lizitaziorako klausula guztiak ezagutzea eta bete-betean onartzea.

Kanpoko baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak onartuko dira.

Behin proposamenerako agiriak ireki eta onartu direnean, lizitatzailleek ezin izango dituzte beren eskaintzak ezeztatu.

Lizitatzailleek proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango dute, eta ez da onartuko aldaerak aurkeztea.



Mutrikuko Udala

Postaz bidalitako eskaintzak dagozkion xedapen espezifikoaren arabera arautuko dira. Eskaintzak postaz edo legez ezarritako bestelako bitartekoa erabilia bidaliz gero, lizitatuzaileek bidalketa epearen barruan egin dutela jakinaraziko diote kontratazio-organoari, bidalketaren egun berean igorritako telegrama edo faxen bidez.

27.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau esleitzeko orduan, jarraian zehaztutako alderdiak balioetsiko dira, behean adierazitako baremoen arabera:

- Proposamen ekonomikoa:20 PUNTU

Eskaintza ekonomikoa balioesteko formula hauze izango da:

$$B = \frac{\text{Balioesteko eskaintzaren prezioa X puntuazio handiena}}{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}$$

- Aurkeztutako proiektua45 PUNTU
- Lizitatuzailearen egoera soziala, familiakoa, ekonomikoa eta lanekoa.....20 PUNTU:
 1. Langabezia egoera.....5 PUNTU
 2. Eskatuzailearen kargura dauden senide edo seme-alaba menpekoak, familiako karga, seme-alabak bere kargura, horiek langabezian (dagozkien agiriekin frogatu beharko da elkarbizitza eta dependentzia)
5 PUNTU
 3. Emakumeak.....5 PUNTU
 4. Lizitatuzailea edo bere menpeko senide bat gizarte bazterkeriak eragindako multzo batekoa izatea: luzeko langabetuak, 45 urtetik gorakoak, gazte langabetuak, desgaitasuna.....5 PUNTU
- Enplegua sortzea eta autoenpleguaren sustapena 10 PUNTU
- Ingurumen- eta iraunkortasun-irizpideak5 PUNTU

Dokumentazioa goiko epigrafeetan adierazitako irizpideen arabera balioetsiko da, eta emakida balioespen horren arabera erabakiko da. Mutrikuko Udalak emakida onura gehien dakarren proposamenari esleitzea aukeratu ahal izango du, proposamenen balio ekonomikoa nahita lehenetsi behar izan gabe, edo, bestela, emakidaren esleipena eman gabe utzi ahal izango du.

Lizitatuzaileek merezimenduen atalean ezarritako baldintzak egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko dute hirugarren gutunazalean.



Mutrikuko Udala

28.- KONTRATAZIO MAHAIKO KIDEAK

Honako hauek izango dira mahaiko kideak:

- Lehendakaria: Alkatea edo berak eskuordetzen duen zinegotzia.
- Bokalak:
 - Udal Idazkaria edo eskuordetzen duen funtzionarioa.
 - Zinegotziak.
 - Udal garapen sozioekonomiko zerbitzuko teknikaria.
- Idazkaria: udaleko funtzionario bat.

29.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

A gutunazala (administrazio-agiriak orokorrean): Kontratazio-mahaiak bilera egingo du proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren eta lizitatzailleentzako A gutunazalak ireki eta gero, bertan dagoen dokumentazioa kalifikatuko du. Lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela ikusiz gero, kontratazio mahaiak, egoki baderitzo, hiru egun balioduneko epea ipiniko du hutsuneak betetzeko.

Behin Mahaiak aipaturiko dokumentazioa kalifikatu eta gero, eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioan dauden akatsak konpondu edo hutsuneak bete direnean, hautatzeko irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko dira, eta lizitazioan onartutakoak nahiz baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak berariaz aipatuko dira. Kontratazio Mahaiak enpresariari eskatu ahal izango dizkio aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuen gaineko argibideak, edo agiri osagarriak aurkez ditzan, eta enpresariak 5 egun naturaleko epea izango du horiek aurkezteko, eta ezin izango dira aurkeztu behin eskaintzak onartu direnean.

Esleitze-irizpideak jasotzen dituen B gutunazalak jendaurreko ekitaldi batean irekiko dira, dokumentazio administratiboa (A gutunazala) irekitzen den egunean hasita gehienez ere zazpi eguneko epean burutuko da. Ekitaldia egiteko lekua, eguna eta ordua kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta onartutako lizitatzailleei igortzen zaien jakinarazpenean adieraziko da. Ekitaldian, gutunazalaren barruan dagoen dokumentazioa emango zaio horren balioespena egiteko ardura duen organoari.

Onartutako proposamenen C gutunazalak (proposamen ekonomikoa) jendaurreko ekitaldi batean irekiko dira goian adierazitako ekintzen ondoren. Ekitaldia egiteko lekua, eguna eta ordua kontratatzailearen profilean (www.mutriku.eus) eta onartutako lizitatzailleei igortzen zaien jakinarazpenean adieraziko da, balio-judizioaren mende dauden irizpideei emandako haztapena ezagutu eta gero.

Kontratazio-mahaiak, bere esleipen proposamena egin baino lehen, kontratuaren xedearekin zerikusia duten txosten tekniko eta juridiko guztiak eskatu ahal izango ditu, egokia baderitzo.

Baldintzen agirian ezarritako irizpideak aplikatu eta gero, Administrazioak aukera dezake onurarik handiena duen proposamenari kontratua esleitzea, proposamenaren balio ekonomikoa kontuan izan gabe; edo, egokia bada, esleipena hutsik utz dezake, baldintzen agiri honetako esleipen-irizpideen arabera emandako ebazpenaren bidez.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko Administrazioaren aurrean proposatutako lizitatzaillearentzat.



Mutrikuko Udala

30.- AUKERATUTAKOAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio onurarik handiena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari aginduzko dokumentazioa aurkez dezan errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita gehienez ere 10 egun balioduneko epean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Agiri honetako 17. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria. Esleipendunak 2.000 euroko behin betiko bermea eratuko du.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan xedaturiko edozein modutan eratu ahal izango da.

- Kontratua enpresen batasun bati esleituz gero, enpresen batasun horrek kontratua sinatzeko epearen barruan egiaztatu beharko du legez eratu dela eskritura publikoaren bitartez aldi baterako enpresen batasun bezala. Era berean, enpresen batasunaren IFK aurkeztu beharko dute. Enpresariak era solidarioan behartuta egongo dira Administrazioaren aurrean, eta batasunaren ordezkari edo ahalorde bakarra izendatu beharko dute, kontratua iraungi arte haren ondorio diren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa duena, kopuru handiko kobrantzak edo ordainketak egiteko eskuorde mankomunatuak emateari utzi gabe.
- Esleipenduna Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez badago prestazioaren garapena egingo den lurraldean, kontratua garatuko den lurralde historikoan alta eman beharko du berak, betiere maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Itun Ekonomikoari buruzkoak, 44. artikuluan ezarritakoa betez.
- Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, agiria honetan eskatutakoaren arabera.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, hau da, eskumena duten administrazioek emandako ziurtagiriak.

Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailari, eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraituz.

31.- KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan.

Esleipena arrazoitua izango da, esleipendunari zein izangai edo lizitatzailari jakinaraziko zaie, eta Mutrikuko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Jakinarazpenean, nolahi ere, baztertutako lizitatzailari edo baztertutako izangaiari esleipenari buruzko erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsioa jartzea ahalbidetzen dion informazio guztia jasoko da. Nahitaezkoa



Mutrikuko Udala

izango da esleitzeko arrazoiari Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan adierazitako konfidentzialtasuna ezartzea. Jakinarazpena jasotzaileak jaso duela egiaztatzen duen edozein bitarteko erabilita igorriko da.

Kontratazio-organoak agiri honetan araututako kontratua adierazitako epean esleitzen ez badu, lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak kendu ahal izango dituzte, eta aldi baterako bermeak berreskuratzeko eskubidea izango dute.

32.- KONTRATUA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratua Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153 artikuluan aurreikusitako epeetan eta moduan formalizatuko da. Esleipendunak honako ekintza hauek egin beharko ditu:

- a) Bere kasuan, lizitazio honen iragarkiak aldizkari ofizialetan eta, egonez gero, eguneroko prentsan ordaintzea. Gehieneko zenbatekoa 750,00 € izango da.
- b) Azkenik, Udalean agertzea kontratua administrazio-agirian formalizatzeko.

Kontratua eskritura publikoan formalizatu ahal izango da, kontratistak hala eskatzen duenean, eta berak ordaindu beharko ditu, orduan, egilestearen ondoriozko gastuak.

Kontratistari egoztekoak diren arrazoiak direla eta kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, Administrazioak erabaki ahal izango du kontratua suntsitzea eta baita behin betiko bermea konfiskatzea, berme hori eratu bada. Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egoztekoak badira, berandutzak kontratistari sortutako kalte-galerak ordainduko zaizkio.

Klausula hauen bidez arautzen den administrazio-emakidari ezin izango zaio hasiera eman, aldez aurretik formalizatu gabe.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 155.2. artikuluan ezarritakoa betez, kontratua sinatzeari uko eginez gero edo prozedura atzera botaz gero, Administrazioak zehaztu beharko ditu esleipena egitean sortutako gastuak, eta entzuteko izapidea egin eta bermatu beharko du.

33.- IKUSKATZEA ETA KONTROLA

Udalari dagokio emakidaren xede diren instalazioetan eskaintzen diren zerbitzuak zuzentzea eta kontrolatzea. Ahalmen hori betez, Mutrikuko Udalak zerbitzuak aldatzeko aukera izango du, eta, ondorioz, instalazioak egoera ekonomiko eta sozialaren arabera eguneratzeko klausula ezarri ahal izango du, betiere udal ordenantzetan adierazitakoa kontuan izanda.

Era berean, Mutrikuko Udalak kontratua azaltzeko, interpretatzeko eta, interes publikoko arrazoiak tarteko, aldatzeko edo suntsitzeko ahalmena izango du.



BESTE XEDAPEN BATZUK

34.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

Agiri honetan ezarritakoaren ondorioetarako, administrazio kontratatzaileak administrazio bidean behin betiko ebatziko du kontratuaren ondorioz sortzen den edozein auzi.

35.- KONTRATUA GAUZATZEA

1. Emakida kontratuan eta horren osagarria den dokumentazioan ezarritakoa zorrotz betez gauzatuko da, eta kontratua interpretatzeko orduan Kontsumoko ikuskariak –kontratuaren arduradun duen funtzionarioa eta, ondorioz, bere gain ikuskatzeko edo kontrolatzeko eginkizunak dituen– ematen dituen jarraibideen arabera; beste alde batetik, emakidadunak Udal Administrazioarekin koordinatuta eta administrazio horren ikuskaritzapean jardungo du.

Udal merkatuko postuan kontratatutako zerbitzu publikoko emakida-kontratua burutzeko, emakidadunak egokiak eta aproposak diren baliabide pertsonalak erabiliko ditu kontratua betetzeko.

2. Esleipendunaren konturakoak izango dira gastu hauek:

- Kontratuaren lizitazioari buruzko iragarkien ondorioz sortutakoak eta kontratua prestatzeko eta formalizatzeko orduan sortzen direnak.
- Erakunde ofizial edo partikularrek eman beharreko baimenak, lizentziak, agiriak edo beste edozein informazio eskuratzeko behar direnak.
- Lanaren xedeak betetzeko eta egiaztatzeko beharrezkoak diren lanak edo txostenak.
- Indarrean dauden xedapenen arabera ezargarriak diren zergak, eskubideak, tasak, konpentsazioak eta gainerako kargak edo gastuak, aipatutako xedapenek ezarritako moduan eta zenbatekoan.
- Administrazioari sortzen zaizkion kalteordainketak egitea, aipatutako artikuluan adierazitako kausak eta salbuespenak kontuan hartuta.

36.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratistak Udal Administrazioak izendatutako kontratuaren arduradunak proposatzen dizkion aldaketak onartu beharko ditu beti, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak gaiari buruz ezarritako mugak gainditzen ez badira.

Kontratuan egin daitezkeen aldaketak edo kontratua gauzatzean sor daitezkeen gorabeherak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta honekin bat datorren araudian zehaztutakoaren arabera bideratuko dira.

Administrazioak zehaztuko du proposatzen diren aldaketen balorazio ekonomikoa, izendatutako funtzionarioaren proposamena eta esleipendunak entzunaldian adierazten duena kontuan hartuta.



Mutrikuko Udala

37.- GIZARTE, LAN ETA EKONOMIAREN ALORRETAKO BETEBEHARRAK

Esleipendunak lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren alorretan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta betebeharrak ez betetzeak ez du berekin izango Udalaren inolako erantzukizunik. Betebeharrak funtsezkoak dira kontratuan, eta horiek ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izan daiteke.

AMAIERAKO XEDAPENAK

38.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. Kontratu honen lizitazio-prozeduraren esleipendunaren eta Udalaren arteko loturaren izaera honako hau izango da: zerbitzu publikorako diren udal-jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa, Toki Erakundeen Ondasun Araudiaren 78.1.a artikuluan adierazitakoaren arabera; zehazki, administrazio-emakidaren bidez, hornidura edo merkataritza-jarduera jakin baten zerbitzu publikoa ematean datza, eta, horrekin batera, xede horretarako, horniduraren udal merkaturaren esleitutako instalazio iraunkorrak erabiltzean, 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegiaren 114.2.b artikuluari eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 312. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Kontratatzeko eskumena duen udal organoak kontratua interpretatzeko, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak konpontzeko, interes publikoa dela-eta aldatzeko edo kontratua suntsitzeko legezko eskumena du, Legean adierazitako mugen barruan eta baldintza eta ondorioen arabera. Ahalmen horiek guztiak izango ditu kontratatari aginduzko entzunaldia eskaintzeari eta dauden erantzukizunei nahiz kalte-galerak ordaintzeari utzi gabe.

3. Kontratuaren ondorio diren auziak eskumena duten auzitegien menpe egongo dira.

4. Kontratatariak, administrazio baldintza berezietan agiri honetan zehaztutakoaz gain, honako arau hauek ere bete beharko dituzte:

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Toki Araubidean indarrean dauden arauen testu bateratua onesten duena; Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua,; Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araubidea eta Toki Korporazioetako Ondasunen Araubidea, eta, hori ezean, zuzenbide pribatuaren arauak eta nahitaez betetzekoak diren zerga-arauak arautzen dituzten aginduak.

5. Udal Administrazioak emakidarekin lotuta burutzen dituen egintzak (prestaketa, egilestea, betetzea, interpretatzea, suntsitzea, etab.) administrazio-izaerakoak dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira.

Postuaren emakidadunei eragina sortzen dieten Udal Administrazioaren egintzak emakidadunari entzun eta gero erabakiko dira.



Mutrikuko Udala

39.- DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, berariaz adierazten da lizitatzailerik emandako datuen tratamenduaren helburua dela udal merkatu plazako postuak esleitzea, eta datuak Mutrikuko Udalak erabiliko dituela, hura osatzen duten sailen eta zerbitzuen bitartez, eta ez zaizkiela hirugarrenei lagako.

40.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe jarriko dira. Nolanahi ere den, alderdiek beren arteko auziak arbitrajearen menpe jartzea erabaki dezakete, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

EGINBIDEA: Baldintza administratibo berezien agiri hau 2024ko uztailaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran onartu ziren. Idazkari-Kontuhartzailea. Sinadura elektronikokoaren egunean.